



## **EUSKALTZAINDIARENTZAT AURRERAPAUSSA DA FRANTZIAKO ASANBLEA NAZIONALAK ONARTU BERRI DUEN HIZKUNTZA GUTXITUEN ALDEKO LEGEA**

**Era berean, kezka ikusten ditu Frantziako gobernuak prozesuan erakutsi duen jarrera hertsia eta, ildo beretik, Eskualdeko Hizkuntzen Ondarea Babestari eta Sustatzeari buruzko Legearen kontra Frantziako Asanblea Nazionaleko hiruretan hogeit hamar diputatuk, Frantziako Kontseilu Konstituzionalean, aurkeztutako helegitea**

**Eskualdeko Hizkuntzen Ondarea Babestari eta Sustatzeari buruzko Legea** 2021eko apirilaren 8an onartu du Frantziako Asanblea Nazionalek, Senatuak 2020ko abenduan onartu ondotik. Lege horrek eraberritu du orain dela hiruretan hogeita hamar urtetik hona indarrean egon den bidea.

Euskaltzaindiaren aburuz, onartutako legea urrats garrantzitsua da, besteak beste, hizkuntza gutxiagotuak biziberritzeko asmoz, hezkuntzan murgiltze eredia legeztatzen duelako; gizarte-ekimeneko eskola eta ikastolen finantzaketa sendotzen duelako; hizkuntza elebiduna eskaintzen ez duten udalerriek irakaskuntza elebidunaren finantzaketan parte hartu beharko dutelako; ele bietako seinaleztapen publikoa arautzen duelako; edo hizkuntza gutxiagotuen grafia partez aintzat hartzen duelako.

Izan ere, Euskaltzaindiak uste du Frantziak zor historikoa duela hiztunen elkarte gutxituekin, luzaroan baztertuak izan baitira, euskara, bretoiera, katalana, okzitaniera, korsikera eta bestelako hizkuntzak baliatzen dituzten herritarrak, Frantziako Errepublikak aitortutako pertsona guztien eskubideen berdintasuna urratuz. Ondorioz, Frantziako Legebiltzarrak onartutako legea urrats garrantzitsua da, baina ez da nahikoa hizkuntza gutxiagotuak normalizatzeko egin beharreko ahaleginean. Horrela, Euskaltzaindiak Frantziako agintariei dei egiten die hizkuntza gutxiagotuak babesteko eta biziberritzeko asmoz, nazioartean indarrean dauden arauak eta emaniko gomendioak bete edota berrets ditzaten, tartean, 1992ko *Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* eta, 2013ko irailaren 11n, Europako Parlamentuak onetsitako *Desagertzeko arriskuan dauden Europako hizkuntzei eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko txostena*.

Inguruabar horretan, Euskaltzaindiak kezka ikusten du Frantziako Asanblea Nazionaleko hiruretan hogeit hamar diputatuk, onartu berri den legearen irismena murrizteko asmoz, Frantziako Kontseilu Konstituzionalean aurkeztutako helegitea, kolokan jar eta muga baitezake, besteak beste, hizkuntza gutxiagotuak biziberritzeko ezinbestekoa den murgiltze eredia, Ipar Euskal Herrian, Okzitanian, Korsikan, Britainian eta abarretan. Ondorioz, Euskaltzaindiak bat egiten du hizkuntza gutxiagotuen, kulturen eta aniztasunaren alde lanean ari diren guztiekin, bereziki elkarte eta erakundeen ahaleginarekin, garrantzitsua baita elkartzea, indarrak batzea eta ahaleginak bizkortzea, hizkuntza gutxiagotuak aitzinatu, biziberritu eta normalizatu ahal izan daitezen.

Euskaltzaindiaren Osoko bilkurak, 2021eko apirilaren 30ean.